



Espediente zk. : 2023ZAKO0004

Gaia : Udal Hizkuntza Politikarako Aholku Kontseiluraren 2022ko memoria

Eskatzailea : ERRETERIAKO UDALA

NAN(IFK) P2007200E

Kokalekua: ERRETERIA

AHOLKU KONTSEILUAREN MEMORIA

URTEA: 2022

Dokumentu honetan jasotzen da **Udal Hizkuntza Politikarako Aholku Kontseiluak 2022.** urtean izandako jardueraren laburpena.

Urteko bilera kopurua. 2022. urtean, Udal Hizkuntza Politikarako Aholku Kontseilua 4 aldiz bildu da, zehazki data hauetan:

- Otsailaren 24an
- Maiatzaren 5ean
- Ekainaren 30ean
- Abenduaren 15ean

Parte hartu dutenak. Bilera hauetan ondorengo entitateek parte hartu dute:

- AEK
- Eguzki elkarte
- Badalab, Hizkuntza Berrikuntzarako Partzuergoa
- Dejabu kultur elkarte
- Errenkoalde
- Hitza
- Hibaika arraun elkarte
- Koldo Mitxelena HLHI
- Lau Haizetara euskaltzaleon topagunea
- Oarsoaldea SA
- Orereta ikastola
- Touring kirol elkarte
- Udal Euskaltea
- Udalaren ordezkari gisa 3 kide aritu dira: Udal Hizkuntza Politikarako zinegotzia eta 2 teknikari.



Jorrotutako gai nagusiak: urtean zehar tratatutako gai nagusiak hauek izan dira:

1. Kontseilu berriaren aurkezpena

Kontseilu berria osatu da. Azken hilabeteetan Udal Hizkuntza Politikarako departamentuan egindako gogoetaren baitan Kontseiluaren izaera ere berregokitu da (2021ean onartutako erregelamenduaren arabera) azken urteotan egindako ibilbideari jarraipena eta koherentzia emateko. Saio honetara hainbat eragileren ordezkariak deitu dira egin nahi dugun bide berri honi hasiera emateko. Planteatuko ditugun helburu eta erronken baitan elkarrekin jardutea da helburua. Kontseilukide berriak izendatu eta bide berriari hasiera eman zaio.

2. 2022ko aurrekontuaren eta urteko plangintzaren berri eman zaie kontseilukide berriei

Kideei aurrekontuaren eta 2022rako plangintzaren barruan urtean zehar landuko diren egitasmoen berri eman zaie: Korrika, Hizkuntzen mapa, Plan Estrategikoa, kale erabileraren neurketa, Euskaraldia, Euskararen Eguna.

3. Plan Estrategikoa

Departamentua Siadeco ikerketa taldearen laguntzarekin 2022-2026 Plan Estrategikoa prestatzen ari da, lau esparru lehenetsita:

1. Lan-mundua
2. Kirolak-aisialdia-Kultura
3. Hizkuntza aniztasuna
4. Eremu formalak: administrazioa, irakaskuntza eta euskalduntze-alfabetatzea, komunikabideak

Eremu horietan diharduten erreferentziazko eragileekin hizkuntzen plana datozen urteotan nola gauzatu landu da, 8 alorren inguruan, eta ezarritako helburuak lortzeko neurriak, ekintzak eta programak zehaztu dira:

1. Euskararen bilakera orokorra
2. Familia bidezko transmisioa eta helduen euskalduntzea
3. Hezkuntza
4. Aniztasuna eta integrazioa
5. Lan-mundua
6. Aisia, kultura-kirola eta hedabideak
7. Euskararen inguruko jarrerak
8. Udala eta euskararen sustapena

Planaren 2023. urterako ekintza plana landu dugu.



4. Kale erabileraren neurketa

2021ean *Euskararen kale erabileraren neurketa* egin zen eta emaitzak 2022an jakinarazi dira. Neurketak eman dizkigun datuak hizkuntza politika bideratzeko tresna direla ondorioztatu da.

Azaroaren 28an datuen berri emateko aurkezpena egin du Soziolinguistika Klusterrak.

5. Euskaraldia/Euskaren Eguna

2022an Euskaraldiaren 3. edizioa egin da. Euskaraldiaren Errenteriako koordinatzaileak balorazioa egin du.

Memoria hau udal gardentasun atarira igoko da, guztien ezagutzarako. Halaber, udal kudeaketa txostenen urteko memorian ere txertatuko da.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Izptua: Udal Hizkuntza Politikarako Aholku Kontseiluko idazkaria

Arantxa Zabala Huizi

OE

Aholku kontseiluko presidentea



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023ZAKO0004-URTEKO MEMORIA_eus/MEMORIA ANUAL_eus (ERREENTERIAKO